

Aitonaren ipuina

Bazen behin mutil bat Bartzelonakoa, baina familia Altsasukoa zen. Egun batean aitak eta amak bidali zuten aitona eta aitona, Gabonetako oporretan hamabost egun.

Mikel pozik zegoen. Bidaia oso luzea izan zen. Iritsi zen nekatuta. Besarkatu zuen aitona baina oso berandu zen. Eta esan zion aitona:

- Mikel, ordua da, zoaz ohera!! Bihar egongo gara.
- Ez, ez dut ohera joan nahi. Orain ez, nire ama ipuin bat kontatzen zuen, egunero. Kontatu ipuin bat, mesedez.
- Nik ez dakit ipuinak. Nekatuta nago eta gainera hotz egiten du.

Aitonak hartu zuen hauspoa eta tximiniako sua bizitu zuen. Gehiegi. Txinparta bat saltoka egin du eta kortinak su hartu zuen.

Aitona sua itzali zuen.

- Eskerrak! – esan zuen aitona.
- Bai, hau sustoa! Eta ipuina?
- A! Orain gogoratzen dut ipuin bat. Kontatuko dizut eta gero ohera.



Orain dela bostehun edo seiehun urte gutxi gorabehera egon zen sute bat Altsasun. Erkuden basiliza ondoan. Igande arratsalde batean hasi zen, udako igandea. Artzain batek ikusi zuen eta albokarekin abisatu zuen.



Herriko kanpanak jo zituzten, oso-oso indartsu. Jende guztiak pentsatu zuten: Zergatik erre da mendia? Orduan denak enparantzara joan ziren.

Momentu horretan oso gizon aldrebasa esan zien:

- Promesa egin zenuten sorginei. Gosea pasatzen ari zireten. Haiek, sorginak, lagundu egin zizueten. Zuek gosea ez

pasatzeko, sorginei mendiko zati bat eman. Baina ez duzue promesa bete. Horregatik erre dizuete mendia. Gosetea



etorriko da.

- *Zer egin dezakegu? – esan zuen jende guztiak.*
- *Idea bat daukat. – esan zuen gizona aldrebesa – Bihar sorgin zaharraren kobazulora joango zarete, eta trato bat egingo duzue sorginarekin. Esan beste mendi bat emango diezuela. Handiagoa eta hobea izango da. Esan ere bere ohoretan festa handia egingo duzuela. Baina kontuz ibili: denak arropa zuriak jantzi beharko dituzue eta zapi koadroduna.*
- *Zertarako arropa zuriak? – galdetu mutil batek.*
- *Arropa zuriak garbitasuna emango dizuete eta babesa sorginen aurrean.*
- *Ondo, egingo dugu.*

Hurrengo eguna herriko jendea foru enparantzatik

sorginaren kobazulora joan zen, Santa Luzian, sakanean.



Hitz egin zuten sorgin zaharrarekin. Egin zuten trataoa.

Herritarrak eta sorginak denak elkarrekin joan ziren San Pedroko zelaira. Festa egin zuten: dantzatu, abestu, zilarrezko

katiluan edan, jan suaren inguruan, hitz egin...



Bat-batean agertu zen gizon aldrebesa eta esan zien sorginei:

- *Indartsuak izan nahi baduzue, jo etxe honetako atea hiru aldiz, hau baselizakoa.*

Sorginak jo zuten hiru aldiz atea.



- **Tok-tok-tok!**

- Aaaaaa!!!! Aitona!!!!Hemen daude sorginak!!!

Eta egongelako atea ireki zen. Amona zen:

- Zertan ari zarete? Ahotsak entzun ditut. Jaiki naiz eta argia ikusi dut.
- Mikeli ipuin bat kontatzen ari naiz.
- Bale, baina bukatu azkar, ordu bata dela.
- Felisa... oporrak dira...
- Benga, aitona, zer gertatu zen sorginekin?



Di-da batean sorginak ziplo lurrera erori eta sukauts bihurtu ziren.

Eta jendeak esan:

- *Zer gertatu da?*

Momentu horretan gizon aldrebesak kapa erantzi zuen eta esan zien:

- Ni San Pedro naiz. Zeruko giltzak dauzkat. Norbaitek nire etxera deitu, nirekin joan. Zuek, herritarrak, kontuz ibili. Ez egin tratoak sorginekin. Beti ez dizuet lagunduko.

- *Eskerrik asko! Gora San Pedro!!!*

Egun hori ekainak 29 zen. Handik aurrera ospatzen da jai



handia San Pedroren ohoretan.

- *Aitona! Ze ipuin polita! Nik nahi dut ikusi baseliza hori. Orain, orain! Mesedez! Mesedez!*



- A ber, Mikel, goizaldeko ordu biak dira. Bihar ikusiko dugu. Orain ohera.

Hurrengo eguna joan ziren baselizara aitona eta Mikel.

Han aitona atea hiru aldiz jo zuen.

- Aitona! Ez egin hori!!!! – esan zuen beldurtuta – San Pedrok eramango zaitu!

Momentu hartan Mikelek ikusi zuen gizona aldrebesa baseliza atzean. Kapa erantzi zuen, Mikeli begi bat itxi zion eta barre egin zuen.



Egileak: Ioli Claver
Kote Zubelzu
Rakel Ausin
Dolo Fernandez de Arroiabide
Maite Claver
Amaia Castillo
Aitziber Lezea
M^a Carmen Unamuno
Juan Perea